



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Espediente zk.: 2018IKTZ 0001
Azalpena: HIRIGINTZA SAILERAKO AHOLKULARITZA ETA DEFENTSA JURIDIKOA

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILEKO AHOLKULARITZA- ETA DEFENTSA JURIDIKOAREN ZERBITZUA KONTRATATZEKO IZAPIDETZE ARRUNTAREN ETA PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA KALIFIKAZIOA

Kontratuaren xedea da, agiri honen arabera, Astigarragako Udalaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailarentzat laguntza eta aholkularitza juridikoa kontratatzea, baldintza teknikoen agirien arabera gauzatu behar dena, eta honako eginkizun hauek biltzen dituen:

- Udaletxera bertaratzea.
- Alkateari –edo hirigintza-batzordeko lehendakaritza eskuordetuzten dion pertsonari– aholkuak ematea hirigintzaren, etxebizitzaren eta ingurugiroaren arloarekin lotutako gai guztietan eta, bereziki, lurraldearen antolamenduarekin, udal-plangintzarekin eta plangintza horren kudeaketa, egikaritze eta hirigintza-diziplinarekin lotutako gaietan.
- Udal arkitektoa eta udal ingurugiro teknikaria juridikoki aholkatzea, baita departamenduko gainerako langileei ere, eta horiekin batera lan egitea departamenduko espediente administratibo desberdinen izapidetzean.
- Kontsultak eta galderak – bai ahoz, bai idatziz – ebaztea eta erantzutea, agirien azterketa behar dutenak barne.
- Udaleko Hirigintza batzordera, eta beste hainbat bileretara, joatea.
- Txosten juridikoak idaztea.
- Udal planeamenduari, bere kudeaketari eta bere gauzaketari buruzko agiriak idaztea.
- Hirigintza-hitzarmenak idaztea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- Udala epaitegietan defendatzea, edozein jardunbidea izanda ere.
- Udal-idazkaritzako arduradunarekin elkarlanean jardutea aurreko atalean aipatutako gaietan; halaber, hirigintza-arloari berez ez dagozkion gaiak izan arren, arlo horrekin lotura duten gaietarako buruz txostenak egin beharko ditu arduradun horrek eskatuz gero.

Egin beharreko lan guztiaren zati bat udaletxean bertan egonda egin beharko da eta kontraprestazio hori orduka zenbatura edo kuantifikatuta dago. Baina ezinezkoa da zer lan egin beharko diren eta zenbat orduz jardun beharko den kuantifikatzea, ezta udalak zenbat prozedura judizialean parte hartu beharko duen jakitea ere. Beraz, kasu horretan, kontratu honen iraunaldian administrazioak kontratatari adierazitako premien arabera egingo da ordu horien kuantifikazioa.

Baldintza tekniko partikularren agiriak nahiz administrazio-klausula partikularren agiriak kontratu-izaera dute, eta enpresa esleipendunak sinatu egin beharko ditu kontratua formalizatzeko ekitaldian, ados dagoen frogagarri.

Definitutako kontratuaren kalifikazioa zerbitzuen administrazio-kontratua da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (aurrerantzean SPKLTB) onartzen duen 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikulua xedatzen duenaren arabera.

CPC kodea: 861
CPV kodea: 79111000-5

2. KLAUSULA.- KONTRATUAREN IRAULPENA.

Kontratuak lau urteko iraupena izango du, kontratua formalizatu edo sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eta behin luzatu ahalko da, beste bi urterako.

Udalak kontratua luzatzea espresuki ebatzen badu eta esleipendunak zerbitzua emateari eusteko interesik ez badu, zerbitzua 4 hilabetez ematea bermatu beharko du esleipendunak, zerbitzua emateari uko egiten diola espresuki jakinarazten duenetik zenbatzen hasita.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Kontratua amaitzen denean Administrazioaren defentsa juridiko eta judiziala egiteke badago kausa judizialen batean, kontratuak indarrean jarraituko du prozedura horri dagokienez edo, elkarrekin adostuta, alderdiek beren defentsa beste pertsona bati esleitzea erabakitzen duten arte.

3. KLAUSULA.- LIZITAZIO PREZIOA

Kontratu honen modalitatearen arabera, kontratuaren guztizko aurrekontua ez da finkatuko, eta honako arau hauei jarraituko zaie atal honetan:

1.- Hasieran kuantifikatutako lanen prezioa –asteroko laguntza udaletxean bertan– 54 euro orduko izango da (BEZik gabe), eta guztira 14.580 euro urtean.

2.- Kuantifikatu gabeko lan-kontratuaren unitateen prezioa, hau da, udalaren premien mendeko diren lanena, honako hau izango da:

a.- Bileretara bertaratzeagatik, betiere udalari laguntzeko ezarritako ordutegitik kanpo egiten bada, 54 euro orduko izango da (BEZa barne).

b.- Zerbitzuko xedean eta edukian deskribatutako txostenak eta dokumentazioak lantzeagatik, betiere udalari laguntzeko ezarritako ordutegitik kanpo egiten bada, 54 euro orduko izango da (BEZa barne).

c.- Prozedura judizialerako defentsagatik prezioa finkatuko da Gipuzkoako Abokatuaren Elkargoak prozedura mota horretarako finkatuta duen gutxienezko tarifaren arabera.

Defentsa judiziala esleitzen zaion unean, esleipendunak aurrekontu bat aurkeztu beharko du prozeduraren kostuaren gain, ordaintzeko modu baten proposamenarekin.

Prezio horietan kontratuko lanak zergapetzen dituzten zerbitzuei dagozkien zenbateko eta kuota guztiak bilduta daude, baita kontratua egikaritzeak dakarren gastuak (dietak, bidaiak-gastuak, seguritate sozialeko gastuak...), BEZa izan ezik, kontzeptu independentea denez dagokion fakturan bildu beharko baita.

a) ataleko lanetarako (bileretara bertaratzeagatik) 25 ordu urteko aurreikusten dira eta b) atalerako (txostenak eta dokumentazioak lantzeko), aldiz, 300 ordu



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

urteko. Beraz, a eta b ataletako aurreikusitako zenbatekoa 17.550 euro/urteko da. Prozedura judizialen zenbatekoa, berriz, 5.277 euro/urtekoa aurreikusi da.

Zenbateko horiek guztiak beherantz hobetu ahalko dituzte lizitatzailleek.

4. KLAUSULA.- FINANTZIAZIOA

Kontratu honen zenbatekoari aurre egiteko aski diru dago aurtengo aurrekontuaren kontu-sail hauetan: 1 0400.227.07.151.00 2018 (1071) eta 1 0300.226.04.920.00 2018 (1046)

Halaber, plangintza honen eraginpena geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartu du aurrekontu gaietan ekukmena duen organuak, alegia, udal osoko bilkurak.

5. KLAUSULA.- ORDAINKETA ERA

Zerbitzuaren ordainketa bideratzeko, esleipendunak dagokion faktura hileroko aurkeztu beharko du, eta bertan zehaztu beharko ditu zer azalpeni dagokion (hots, zer zerbitzuei dagokion) eta zenbat ordu erabili dituen horretarako.

Epaitegietako defentsari edo lanari dagozkion fakturak aparte aurkeztuko dira, eta ordainketa-era, defentsa bere esku uzteko unean adosten den moduan bideratuko dira.

Faktura guztiak telematikoki aurkeztuko dira, eta zerbitzuaren ongi ikusia jaso ondoren, aurkezten denetik 30 eguneko epean ordainduko dira.

6. KLAUSULA.- PREZIO BERRIKUSKAPENA.

Kontratu honen lehendabiziko bi urteetan ezingo da prezioak berraztertu. Kontratuaren hirugarren urtetik aurrera, kontratu legeak horretarako aukera emanez gero, prezioaren berrikuskapena egiterik egongo da.

Kasu horretan, berraztertzean aplikatu beharreko formula honako hau izango da: aurreko urte naturaleko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Kontsumorako Prezioen indizean izandako aldaketa izango da, Estatuko Aurrekontu Orokorreko Legean funtzionario publikoen soldata igotzeko ezartzen duen mugarekin.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

7. KLAUSULA.- BERMEAK

Bermeak, SPKLTBren 95 eta 103 bitarteko artikuluetan jasotako baldintza eta xedapenen arabera jarriko dira

Behin-behineko bermea: Lizitazio honetan parte hartzeko, ez da behin-behineko bermea jartzetik eskatzen.

Behin betiko bermea: Hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko, kontratuaren esleipendunak lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren esleipen-kopuruaren % 5eko behin betiko bermea jarri behar du, Balio Erantsiaren Gaineko Zergarik gabe, hau da, 1.870,35 euro.

Berme hori jartzeko epea 10 egun balioudunekoa izango da, kontratuaren esleipenaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasita, Udal Diruzaintzan jarri beharko da; eskudirutan jarriko da edo SPKLTBren 96. artikuluan xedatzen den edozein baliabide erabiliz.

SPKLTBren 100 artikuluari jarraikiz, esleipendunak honako erantzukizunei egingo die aurre:

a) Kontratatari 212. artikulua arabera ezartzen zaizkion zigorrei.

b) Kontratuan jasotako prestazioak behar bezala gauzatzeari; kontratistak bere betebeharrak betetzen berandutzeagatik administrazioari eragindako gastuei; eta kontratua bete gabe uztean edo kontratua gauzaterakoan administrazioari eragindako kalte eta galerei, kontratua suntsiaraztea ez badagokio.

c) Kontratua suntsiarazten denean ezarritako inkautazioari (baldin eta ezartzen bada), kontratuan bertan edo lege honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bermeak itzultzeko, SPKLTBren 102. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta kontratuaren likidazioa onartu ondoren eta bermearen epea igaro ondoren antolatuko da, beti ere erantzukizunik ez badago; baldin eta epaitegietan gairik pendienterik gelditzen ez bada. Kasu horretan, ez da berme osoa itzuliko, baizik eta epaitegi prozedura horri dagokiona gordeko da. Kasu horretan, itzuli gabe gelditu den zenbatekoa itzuliko da epaitegiko ebazpena irmoa denean.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

8. KLAUSULA.- ENPRESABURUAREN AHALMENA ETA KAUDIMENA.

Kontratazio-prozedura honetan Espainiako edo atzerriko pertsona fisikoek edo juridikoek hartu ahal izango dute parte (bakarka edo enpresaburuaren aldi baterako elkartetan), baldin eta jarduteko erabateko ahalmena badute, kontratatzeke debekurik ezarri ez bazaie eta Administrazioarekin kontratatzeke eskatzen den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa dutela egiaztatzen badute.

Pertsona juridikoen kasuan, kontratu honekin lotura zuzena duten jarduerak egitea izango da haien xedea, eta hura ongi egikaritzeko nahikoa elementu pertsonal eta material dauzkan antolakuntza izatea.

Helburu horrekin aldi baterako eratutako enpresaburuaren elkarrekin ez dute eskritura publikoan formalizatu beharko beren elkarrekin, kontratua haien alde esleitzen den arte.

Europako Erkidegokoak ez diren enpresek parte hartzeko, Sektore SPKLTBren 55. artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 65.1 c artikulua araberak, kontratu honetarako ez da enpresaburuaren sailkapena eskatuko, baina egiaztatu beharko du, bai baldintza-teknikoetan eta plegu honen 10. klausulan eskatzen den kaudimen teknikoa, bai plegu hauen 10. klausulan eskatzen den kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa.

9. KLAUSULA.- ESLEIPEN PROZEDURA ETA NEGOZIATUKO DIREN ALDERDIAK.

Kontratua publizitadedun prozedura negoziatu bidez esleituko da, 3/2011 LEDren 169, 170, 173, 177 eta 178 artikulua aplikatuz, aipatu legearen ezarritako baldintzapean.

Prozedura honetan, alderdi bakarra negoziatuko da, hain zuzen, B kartazalean aurkeztu beharreko memoria teknikoa, zerbitzu-kontratua egikaritzeko moduari buruzkoa.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

10. KLAUSULA.- PROPOSAMENAK, AURKEZTEKO EPEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Kontratazio honen espedientea eta espediente horri lotutako dokumentazio teknikoa Udal honen kontratatzailearen profilean (www.astigarraga.eus) edo Udal honen Idazkaritzan (09:00etatik 13:30era) aztertu ahal izango da lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Proposamenak kontratazioa@astigarraga.eus helbide elektronikora igorriko dira 15 egun naturaleko epean, aipatutako iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN agertzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte isil-gordea ziurtatzeko. Enpresak eskaintza aurkezten duenean, inolako baldintzarik eta salbuespenik gabe oso-osorik onartzen ditu Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta Ezaugarri Teknikoen Agiria.

Lizitatuak bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Lizitatuak bat bakarka aurkeztu bada, ezingo da beste batzuekin aldi baterako enpresa batasunean elkartuta aurkeztu, ezta lizitazioan parte hartzen duten enpresa batasun batean baino gehiagotan sartuta egon ere. Norbaitek arau horiek urratzen baditu, hark izenpetutako eskaintza guztiak lizitaziotik kanpo utziko dira.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lizitatuak honako dokumentazio honen arabera aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

A GUTUN-AZALA	KONTRATATZEKO AHALMENA/GAITASUNA ETA KAUDIMENA
B GUTUN-AZALA	DOKUMENTAZIO TEKNIKOA eta ESKARMENTUA
C GUTUN-AZALA	ESKAINZA EKONOMIKOA

Posta elektronikoz bidez igorri beharreko dokumentazioan pdf diskriminatuen bitartez txertatuko da dokumentazioa, aurkeztu behar den dokumentu bakoitza pdf bakar batean bilduko da; horretarako kontuan hartu, pdf bakoitzaren



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

gehineko edukiera 9 megakoa dela. Pdf dokumentuak edukiera handiagoa badu, beste pdf batean igorriko da.

Posta elektronikoko mezuari dagokionez, ezinbestekoa da GAIA eremuan honako hau zehaztuta azaltzea: LEHIAKETA, ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA, PDF-N IGORRI BEHARREKO DOKUMENTUARI DAGOKION GUTUN-AZALA ETA DAGOKION pdf DOKUMENTUA; hori guztia igorritako dokumentazioa Udalak behar bezala identifikatu ahal izateko. **Hodeira (Dropbox, Wetransfer, edo antzekoak) igotako informaziorik ez da onartuko.**

(Adibidez: HIRIGINTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIkoa– XXX enpresa – A gutun-azala)

A GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

“KONTRATATZEKO AHALMENA/GAITASUNA ETA KAUDIMENA” izeneko “A” gutunazalean honako dokumentu hauek sartuko dira:

1).- Pertsona fisikoak edo juridikoak:

1.1.- NAN, IFK

1.2.- SPKLTBren 151.4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako eta bertan adierazitako jarraikiz, prozedura honen jakinarazpenak egin behar diren korreo elektronikoaren helbidea; halaber, gaitutako pertsonaren izen-abizenak.

1.3.- Enpresa pertsona juridikoa bada: Enpresaren eratze-ekriturak eta enpresaren xedea egiaztatzen duten estatutuak

1.4.- Espainiaz kanpoko enpresak badira, Europar Batasuneko kide edo Europar Espazio Ekonomikoari buruzko Akordioaren sinatzaile den estaturen batekoak, Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 9. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute.

1.5.- Espainiaz kanpoko gainerako enpresek Administrazioen Kontratuen Erregelamenduko 10. artikuluari jarraituz egiaztatu behar dute; horrelako enpresek Espainian sukurtsala eduki behar dute, eragiketetarako ahaldun edo ordezkariak izendatuta, eta Merkataritza Erregistroan izena emana eduki behar dute.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1.6.-Beste norbaiten izenean agertu edo eskaintzak sinatzen dituztenek (berdin dio pertsona fisiko edo juridikoa izatea) nortasun-agiriaren edo horren ordezkariaren duen dokumenturen baten kopia aurkeztu behar dute, eta behar adinako ahalordea dutela egiaztatuz.

2).- Kontratatzeko ahalmena

2.1.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarritako baldintzak erabiltzeko ez duela adierazten duen aitorpena.

2.2.- Borondatezko konkurtsoa eskatu ez dutela, edozein prozeduratan ez direla kaudimengabetzat hartu eta konkurtso-egoeran ez daudela adierazten duen aitorpena.

Deklarazio horiek I. eranskinean agertzen den eredura zehatz-mehatz egokitu behar dira.

3).- Enpresaburuaren kaudimena ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea

Enpresariaren ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeke hauen artean bat erabili daiteke:

a.- Ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzen duen finantza-erakundearen aitorpena.

b.- Arrisku profesionalengatik kalte-ordainen aseguruaren gutxienezko 200.000€-ko erantzukizun zibileko poliza egiaztatuz beharko du.

4).- Kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzea.

Lizitatuak kontratuko prestazioak egiteko kasuan kasu eska daitekeen gaikuntza enpresarial eta profesionala beharko dute, baita kontratuko zerbitzuan esperientzia ere.

Azken hori egiaztatzeke aurkeztu beharko dute batetik, azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda bat, bertan adieraziz, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta onuradun publiko edo pribatuak; eta bestetik, zerbitzuak kontatu duen pertsona publiko edo pribatuak egindako ziurtagiria, epe tarte horretan, gutxienez eginkizun hauek egin direla justifikatzeko asmoz .



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- a.- Lurraldearen antolamenduan, hirigintzako plangintzan eta plangintza hori kudeatzen edota egikaritzean aholkularitza juridikoa eskaini izana behintzat 2 administrazio edo entitate publiko edo pribatuei.
- b.- Gutxienez 20 txosten eta/irizpen idatzi izana, hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro arlokoak.
- c.- Plangintzako edo plangintzaren kudeaketako dokumentu 1 idatzi izana.
- d.- Kontratu honen xede den prestazioari buruz administrazioarekiko auzien prozeduretako 3 defentsa judiziala eraman izana; eta horietako bat – behintzat – aholkularitza honek eskatzen dionaren ingurukoa izatea.

Lizitatzailerak pertsona juridikoa baldin bada, halaber, bere enpresari atxikita dagoen eta zerbitzua egiteko izendatuko duen pertsonaren izena adieraziko du. Pertsona horrek –kontratu honetako jarduera edo prestazioa egiteko kasuan kasu eska daitekeen gaikuntza enpresarial eta profesionala beharko duen horrek– honako puntu hauek egiaztatu beharko ditu:

1. Abokatutzan aritzeko beharrezko gaikuntza duela, Gipuzkoako Lurralde Historikoari gagozkiola, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren dagokion ziurtapenaren bidez.
2. Ekonomia Jardueren gainerako Zergan alta emana egotea kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, alta aurkeztuta, indarrean dagoen ekitaldiko altari edo Ekonomia Jardueren gainerako Zergaren azken ordainagiriari badagokio; gainerako kasuetan, aipatutako zerga horren matrikulan baja ez hartu izanaren erantzukizunpeko adierazpen batekin batera bi kasuetan ere.
3. Lurraldearen antolamendua, udal-plangintza edota plangintza horren kudeaketa arloan, edo hirigintza arloan, edo ingurugiro arloan masterra edo graduondoko ikastaroa edukitzea. Horrek gutxienez 700 orduko iraupena eduki behar du, eta bi edo ikastaro gehiago gehitu ahal izango dira, eskatzen den gutxienerako iraupena lortzeko.
4. Azkeneko bost urteetan eginkizun hauek –gutxienez– burutu izana:
 - a.- Lurraldearen antolamenduan, hirigintzako plangintzan edota plangintza hori kudeatzen eta egikaritzean, edo ingurugiro arloan



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

aholkularitza juridikoa eskaini izana behintzat 2 administrazio edo entitate publiko edo pribatuei.

b.- Gutxienez 20 txosten eta/irizpen idatzi izana, hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro arlokoak. Horiek legeak eskatzen dituen gutxieneko edukiaren baldintza bete behar dituzte.

c.- Plangintzako edo plangintzaren kudeaketako dokumentu 1 idazten lagundu izana.

d.- Administrazioarekiko 3 auzi-prozeduretan abokatu-defentsa eraman izana, eta horietako bat – behintzat – aholkularitza honek eskatzen dionaren ingurukoa izatea.

A, eta c puntuak egiaztatzeko dagokion administrazio edota erakunde kontratatzaileak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta bertan burututako funtzioak zehaztuko dira, baita zerbitzua zenbateko epean eman den ere.

B puntua egiaztatzeko, aldiz, txosten bakoitzaren kopia osoa aurkeztu beharko da.

D puntua egiaztatzeko, berriz, esleipen-dokumentua edo faktura aurkeztu beharko da, eta horrekin batera ebazpen judizialaren kopia bat; datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeria urra dezakeen guztia kendu ahalko da betiere ebazpen horretatik, baina abokatuaren izena argi jarri beharko du, baita demandatzailean edo demandatuaren defentsa izan den, eta ebazpen horren epaia.

Proposamena pertsona fisiko batek aurkezten badu, zerbitzua emateko enpresak aukeratzen dituzten pertsoneri eskatutako baldintza berak beharko ditu proposamen horrek, eta puntu berak egiaztatu beharko dituzte pertsona horiek.

5. Hizkuntza-baldintza

Lizitatzailleek ez dute hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo proposamenak prestatzerakoan eta lantzerakoan.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 6. artikuluari jarraikiz, euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da eta, gaztelania bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeen hizkuntza ofiziala. Gainera, 2014ko otsailaren 27ko udal osoko bilkurak Astigarragako Udaleko hizkuntza-irizpideak



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

eta erabilera plana onartu zuen, eta bertan, administrazioa honen lan-hizkuntza euskara dela jaso zen.

Hori dela eta, obra gauzatzeko esleipendunarekin sinatu beharreko kontratua, euskara hutsean idatziko da, eta ez da itzuliko espresuki ez bada eskatzen.

6).- Aldi baterako enpresa-elkartea.

Esleipenaren alde aurreko fasean aldi baterako elkarteak Administrazioaren aurrean efikazia izan dezan, enpresaburu guztiek eta horietako bakoitzak klausula honetan eskatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, baita enpresa guztien legezko ordezkariak sinatutako dokumentu bat ere, bertan adieraziz sinatu duten enpresen izenak eta zirkunstantziak, esleipendunak izanez gero aldi baterako elkartean modu formalean eratzeko konpromisoa hartzen dutela, enpresa bakoitzak aldi baterako elkarte horretan izango duen partaidetza, eta kontratuaren indarraldian enpresa guztiak administrazioan erabat ordezkatzeko izendatu duten pertsona.

Aldi baterako elkartearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa ezartzeari eta haren eraginei dagokienez, elkarteko kide bakoitzarentzat egiaztatutako ezaugarriak metatuko dira.

Kontratua enpresen aldi baterako elkarte bati esleitzen bazaio, elkarteak bere eraketa eskritura publiko bidez egiaztatuko du, baita elkarte horri esleitutako IFK ere, kontratua formalizatu baino lehen. Enpresa-elkartearen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, kontratua amaitzen den arte.

7).- Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasun Publikoarekiko ordainketetan egunean dagoela egiaztatzea

Gizarte-segurantzari eta foru-ogasunari ordaindu beharrekoak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztuko dira. Egiaztagiri horiek lizitatzaille berak edo administrazio eskudunek jaulki ditzakete; kasu horietako lehenengoan baldintza hori egiaztatzen duen ziurtagiria esleipena egin baino lehen esleipen hori jasoko duenak aurkeztu beharko duela bazter utzi gabe.

8).- Behin-behineko bermea:

Ez da eskatzen

9) Lizitatzailen agiri eta datu konfidentzialak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginak 140. artikuluan xedatzen duen modura, lizitatzailleek adierazi behar dute zein agiri



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

administratibo eta tekniko eta zer datu hartu behar diren konfidentzialtzat, hartu beharrekorik badago, eta adierazpen osagarri batean azalduko dute hori.

Konfidentzialtzat jotako agirian bertan ere argi eta garbi adierazi beharko da izaera hori (ganean, orri-ertzean, edo beste edonola). Lizitatzaleek aurkeztutako agiri eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira, horien berri hirugarren bati emateak enpresaren merkataritza interes legitimoen kontra egin dezakeenean, alor bereko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edo Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako debekuak urratzen dituenean. Adierazpen hori egiten ez bada, ulertuko da aurkeztutako agiri edo datu guztiak edo batzuk, ezaugarrien arabera, ez direla konfidentzialak.

B GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

“DOKUMENTAZIO TEKNIKOA ETA ESKARMENTUA” izeneko “**B**” gutun-azalean honako dokumentu hauek sartuko dira:

B.1.- Zerbitzu-kontratua egikaritzeko aurreikusitako moduari buruzko memoria teknikoa; besteak beste, dokumentazioa prestatzeko metodologia, prestaketa-lan horietarako epea, prestasuna eta abar zehaztu beharko dira memorian.

B.2.- Zerbitzua gauzatzeko izendatuko den pertsonaren lanbide-erperientzia balioetsi ahal izateko:

2.a.- Administrazio Publikoetan hirigintzako eta ingurumeneko aholkularitza espezifikoa ematen egindako antzeko lanak.

Alderdi hori bi modutara egiaztatu daiteke: dagokion administrazioak egindako ziurtagiriaren bitartez; ziurtagiri horretan, zer eginkizun bete dituen eta zerbitzu hori ematen zenbat denboraz jardun duen ere zehaztu beharko dira; edo kontratua gauzatzeko garaian egin diren fakturen bidez.

2.b.- Partikularrei –Itun Batzarrak, erakunde laguntzaileak... barnean hartuta– lurraldearen antolamenduarekin, udal-plangintzarekin,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

plangintza horren kudeaketa, egikaritze eta hirigintza-diziplinarekin lotutako aholkularitza espezifikoa ematen egindako lanak.

Alderdi hori bi modutara egiaztatu daiteke: kontratatu duen erakundeak egindako ziurtagiriaren bitartez; ziurtagiri horretan, zer eginkizun bete dituen eta zerbitzu hori ematen zenbat denboraz jardun duen ere zehaztu beharko dira; edo kontratua gauzatzeko garaian egin diren fakturen bidez.

2.c.-Idatzi dituen plangintzako dokumentu eta tresnen zerrenda, baita plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko idatzitakoak ere: plan orokorrak, plan bereziak, plan partzialak, konpentsazio-proiektuak, birpartzelazio-proiektuak, Xehetasun Azterketak, HJP...

Alderdi hori egiaztatu egin beharko da kontratatu duen administrazioak edo erakundeak egindako ziurtagiriaren bitartez, edo dokumentua idatzi duela eta/edo dokumentua idazten parte hartu duela adierazten duen dokumentuaren zatia eta karatula aurkeztuta.

2.d.- Abokatutzat jardun duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoak. Alderdi hori egiaztatzeke, aurkeztu beharko da, bai zerrenda edo erlazio bat, bai prozesuan parte hartu duen abokatua identifikatzen den sententziak edo epaitegiko autoak edota –administrazio publikoa defendatu den kasuetan– izendapen dekretua.

C GUTUN-AZALEAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

“C” gutunazala: **PROPOSAMEN EKONOMIKOA**

Zerbitzu-unitate bakoitzeko proposamen ekonomikoa aurkezteko, ezinbestekoa da II eranskinean jasotzen den eredia jarraiki idaztea.

Hitzez eta zenbakiz idatzitako zenbatekoen artean alderik izanez gero, baldin eta eskaintzen den prezioa benetan zein den ezin bada argi ikusi, eskaintza baztertu egingo da.

Eskaintza enpresa talde batek egin denean, taldeko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkariaren bitartez.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

11. KLAUSULA.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA, NEGOZIAZIOA, PROPOSAMENEN BALORAKETA, ESKAINTZEN KLASIFIKAZIOA ETA ESLEIPEN-PROPOSAMENA.

Kontratu hau PUBLIZITATEDUN PROZEDURA NEGOZIATU bidez esleituko da.

Kontratazio Mahaia osatuko duten kideak honako hauek izango dira:

- Lehendakaria: Jon Arregi eta ordezkoa, Zorione Etxezarraga.
- Bokalak:
 - Andoni Gartzia eta ordezkoa, Ione Olatziregi
 - Mikel Duran.
 - Udal idazkaria
 - Udal kontu-hartzailea
- Idazkaria: idazkaritzako administraria.

A eta B gutun-azalen dokumentazioaren kalifikazioa

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-prozedura honetan zehaztutako posta elektronikoko telematikoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko da, eta jasotako dokumentazio guztia, A eta B gutun-azalei dagokiena, erkatuko da.

Erkatzea gauzatutakoan, bi gutun-azaleko dokumentazioa (A eta B) udal-idazkariari igorriko zaizkio, dagozkion txostenak egin dezan. Erkatzean akats materialak daudela edo informazio osagarria behar dela ikusten bada, hiru egun balioduneko epea emango da horiek konpontzeko. **Epea hori korreo elektronikoz jakinaraziko da lizitazioa honetarako adierazitako harremanetarako helbidean, eta eman ez bada, A gutunazala bidaltzeko erabilitakoan; eta epea kontatzen hasiko da mezua bidali eta hurrengo egunean.**

Horretarako emandako epean enpresak A gutun-azaleko gabeziak osatzeko eskatutako agiriak aurkezten ez baditu, prozesutik baztertuko zaio. B gutun-



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

azalekoak zuzentzen ez baditu, berriz, dagokion irizpidearen arabera baloraziorik ez zaio egingo lizitatzailerik eskaintzari.

Eskaintza ebaluatzeko garaian, jarraian azaldutako esleipen-irizpenak kontuan hartuko dira, SPKLTBren 150.2 eta 176 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Proposamen hauek ez dira onartuko.

- A gutun-azalean eskatzen diren agiri guztiak aurkezten ez dutenak, eta horiek zuzentzeko udalak emandako 3 lanegunetan, zuzendu ez direnak.
- Zerbitzu unitate bakoitzarentzako ezarritako gehieneko lizitazio-preziora gainditzen dutenak.
- Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo arau-hausteak direla-eta Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak, eta badira zuzendu edo argitu horretarako udalak ematen dien hiru laneguneko epean.
- Proposamen bat baino gehiago aurkezten duten lizitadoreen eskaintzak. Las de aquellas personas licitadores que presenten más de una proposición.

Negoiazio fasea.

1.- Negoiazio prozedura segidako bi fasetan antolatuko da, negoziatu beharreko eskaintza kopurua murriztearren. Orokorrean, udal idazkaria izango da negoziazioaz, ebaluazioaz eta negoziazioa proposatzeaz arduratuko dena.

Lehen fasean, eskarmentu atala hartuko da kontuan soilik. 3 eskaintza onuragarrienak aukeratzeko erabiliko diren irizpidea hau izango da:

	ESLEITZEKO IRIZPIDEAK	Puntuak	<u>Egiaztatzeko erabili den gutun-azala</u>
	Eskarmentua.	0-85	B

Atal honetan puntuazio hoberena lortu duten 3 enpresa hautatuko dira, eta bigarren fasea hautatutako horiekin bakarrik jarraituko da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bigarren fasean, lizitatuzaile bakoitzarekin memoria teknikoa negoziatuko da. Helburu izanik horiek, udalaren beharrei egokitzea, hartara ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena zein den zehaztearren.

2.- Negoziazio prozeduraren ondorioz lizitatuzaileek hasieran aurkeztutako eskaintzak aldatzen badituzte, amaierako eskaintzak dokumentatu egingo dira hasierako baldintza berdinetan.

3.- Negoziazioan zehar, lizitatuzaile guztiek tratua bera jasotzen dutela zaindu behar da. Bereziki, ez da informaziorik emango diskriminazioa eraginez eta lizitatuzaile batzuei besteen gaineko abantaila emanaz.

Beti bermatuko da aurkeztutako dokumentazioaren eta eskaintzen konfidentzialtasuna. Horregatik, lizitatuzaile batek beste baten dokumentazioa eskatzen badu, informazioa emateko adostasuna eskatuko diogu dokumentazioa aurkeztu duen enpresari. Adostasuna ez da eskatutako eta informazioa ere ez da emango, aurretik lizitatuzaileak informazio hori konfidentzialtzat hartu badu.

4.- Udal-idazkariak egingo duen txostenean jasoko dira, alde batetik, fase horretan burututako jarduketaren guztien zerrenda eta, bestetik, kontratuko baldintzei bi alderdiek eman beharreko onarpena. Esleipendun ateratzen den lizitatuzailearekin izandako negoziazioaren nondik norakoak kontratuan jasoko dira.

Txosten hori kontratazio mahaiari igorriko zaio.

Proposamenen baloraketa/esleipen irizpenak

Lehiaketaren esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat (garrantzi eta haztapenaren arabera ordenatuta adierazten dira):

	Lehiaketan egingo den baliozpena:	Puntuak	<u>Egiaztatzeko erabali- ko den gutun-azala:</u>
1	Eskarmentua	0 - 85	B
2	Zerbitzuaren prezioa	0 - 35	C
3	Memoria teknikoa	0 - 30	B



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

1.- Zerbitzura atxikitako pertsonaren esperientzia profesionala: 85 puntu, honela banatuta:

a.- Administrazio Publikoetako hirigintzako eta ingurumeneko aholkularitza espezifikoko antzeko lanetako esperientziari 30 puntu esleituko zaizkio, eta honela kalkulatuko dira: esperientzia handiena egiaztatzen duen pertsonari 30 puntu esleituko zaizkio, eta gainerako izangaien puntuazioa hiruko erregela baten bidez banatuko da. Horretarako, aurrez, puntu bat esleituko zaie esperientzia-hilabete bakoitzeko lizitatzailerako bakoitzari.

b.- Lurraldearen antolamenduari, udal-planeamenduari, dagokion kudeaketarekin, egikaritzapenarekin, partikularrentzako hirigintza-diziplinarekin –itun-batzarrak, erakunde laguntzaileak, eta abar, barne– lotutako aholkularitza espezifikoko esperientziari 10 puntu esleitzen zaizkio, eta honela kalkulatuko dira: esperientzia handiena egiaztatzen duen pertsonari 10 puntu esleituko zaizkio, eta gainerako izangaien puntuazioa hiruko erregela baten bidez banatuko da. Horretarako, aurrez, puntu bat esleituko zaie aholkularitza bakoitzeko lizitatzailerako bakoitzari.

c.- Planeamendua eta horren kudeaketarako dokumentu eta tresnen idazkuntzagatik, eta plangintza kudeatzeko eta egikaritzek idatzitakoengatik 20 puntu esleituko dira, eta honela kalkulatuko dira: esperientzia handiena egiaztatzen duen pertsonari 20 puntu esleituko zaizkio, eta gainerako izangaien puntuazioa hiruko erregela baten bidez banatuko da. Horretarako, aurrez, puntu bat esleituko zaie esperientzia-hilabete bakoitzeko lizitatzailerako bakoitzari.

d.- Auzitegiaren esperientziari 25 puntu esleituko zaizkio, eta honela kalkulatuko dira: esperientzia handiena egiaztatzen duen pertsonari 25 puntu esleituko zaizkio, eta gainerako izangaien puntuazioa hiruko erregela baten bidez banatuko da. Horretarako, aurrez, puntu bat esleituko zaie kontratu honen xedearekin bat datorren prozedura judizial bakoitzeko, eta puntu-erdi gainerako administrazioarekiko auzi-prozedura bakoitzeko.

2.- Zerbitzuaren prezioa edo eskaintza ekonomikoa: 35 puntu modu honetan banatuko dena:

a.- 10 puntu kuantifikatutako zerbitzuaren eskaintza ekonomikoari.

Onartutako proposamenen eskaintza ekonomikoak puntuatuko dira interpolazio lineala erabiliz, P1 (Baja maximoa, Puntuazio maximoa) eta P2 (Baja zero, Puntuazio minimoa) puntuen artean egindako lerroaren barruan. Honako hauek dira puntuak:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

P1 – Eskaintzarik ekonomikoena (Baja maximoa), puntuazio maximoa jasoko duena (Pmax puntu).

P2 – Lizitazio motari dagokio eta puntuazio minimoa emango zaio, formula honen arabera:

$$P_{\min} = P_{\max} \times (1 - B_{\max})$$

(Bmax = Baja maximoa)

Baja (B) da lizitazio mota ken eskaintza ekonomikoa, zati lizitazio mota. Lehen aipatutako lerroa egiteko, onartutako oinarri-eskaintzak bakarrik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, **neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen prezio guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 10 unitate baino txikiagoak direnak, eta eskaintzak halakotzat hartzeko, ustez eskaintzaren barruan dauden lizitatzaille guztiei eskatu beharko zaie informazioa aurretik, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

b.- 5 puntu udalari laguntzeko ezarritako ordutegitik kanpoko bileretara bertaratzearen (kuantifikatu gabeko zerbitzua) eskaintza ekonomikoari. Puntu horiek banatzeko erabiliko den formula eta irizpideak (neurritz kanpokotzat hartzen diren eskaintzak barne) kuantifikatutako zerbitzuetarako erabili den bera izango da.

c.- 10 puntu udalari laguntzeko ezarritako ordutegitik kanpo egindako txosten eta dokumentazioaren (kuantifikatu gabeko zerbitzua) eskaintza ekonomikoari. Puntu horiek banatzeko erabiliko den formula eta irizpideak (neurritz kanpokotzat hartzen diren eskaintzak barne) kuantifikatutako zerbitzuetarako erabili den bera izango da.

d.- 10 puntu epaitegietako defentsa-lanen eskaintza ekonomikoan aplikatu den prezio jaitsieragatik. Puntu horiek banatzeko formula hau erabiliko da: puntuaziorik handiena emango zaio prezio-jaitsiera handiena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa honela kalkulatu da: prezio-jaitsiera handiena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatzaillearen arteko zatiketa bidez irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, hortik ateratzen den emaitza. Hots,

$$P = EM / EL \times 10$$

P: Lizitatzaillearen puntuazioa

Em: prezio-jaitsiera handiena

EL: lizitatzaillearen eskaintza



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Hasiera batean, **neurritz kanpokotzat edo ezohikotzat** hartuko dira onartutako eskaintzen guztien neurri aritmetikoa baino txikiagoak diren eskaintzak, 20 unitate baino gehiago jaisten direnak.

3.- Memoria teknikoa: 30 puntu

Zerbitzuak prestatzeko moduari buruzko memoria negoziatu egingo denez, negoziazio fase bakoitza puntuatuko da, eta azken emaitza izango da bi horien arteko bataz besteko aritmetikoa.

C gutun-azalean sartutako eskaintzak irekitzeko ekitaldi publikoa.

A eta B gutun-azaleko dokumentuak kalifikatzen bukatutakoan, eta negoziazio fasearekin bukatu ostean, Mahaiak kontratistei deialdia egingo die Eskaintza ekonomikoa izeneko C gutun-azala irekitzeko ekitaldi publikora bertaratzeko.

Aurretik, eskaintza ekonomikoak ireki baino 5 minutu lehenago, eskaintza egin dutenek eskaintzen duten eskaintza ekonomikoa azaltzen den posta elektronikoko mezua irekitzeko kodearen berri eman behar diote Mahaiari.

Ekitaldi publikoak ondorengo urrats hauek izango ditu:

- Lehenik, A eta B gutun-azaleko ebaluazioaren emaitza jakinaraziko zaie bertaratutakoan, hau da, lizitatzaileraren bat kanpo gelditu den eta bakoitzak lortutako puntuazioa. Baita negoziatu den lizitatzaileren izena ere.
- Jarraian, kontratziomahaiak C gutun-azalak irekiko ditu, hain zuzen ere, negoziatu den lizitatzaileren proposamenen eskaintza ekonomikoa.
- Kontratu honen xede den zerbitzu guztiak bideratzeko proposamenak jasotzen ez dituzten eskaintzak.
- Puntuazioaren araberako sailkapena egingo da, horretarako goran adierazitako formula matematikoa erabiliz. Baina hori ez da ekitaldi berean egingo.
- Bilera itxian, kontratazio mahaiak eskaintzen puntuazioak banatuko ditu. Eta ondoren, esleipen-proposamena luzatuko dio kontratazio-organoari, kasu honetan, udal osoko bilkurari.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Kontratazio-mahaiak egiten duen esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako enpresaburuaren alde, eta ez ditu eskubide horiek eskuratutako administrazioari dagokionez, kontratazio-organoaren erabakiz kontratua esleitzen ez zaion bitartean.

Esleipena egin baino lehen kontratazio-organoak kontratua sinatzeari uko egiten badio edota prozeduran atzera egitea erabakitzen badu, lizitatzailerei ebazpen arrazoitua bidaltzeko jakinarazpenean lizitazio-gastuengatik ordainduko den konpentsazioa adieraziko du.

12. KLAUSULA.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio-mahaiak kontratua oro har eskaintzarik onuragarriena aurkezten duen lizitatzaileri esleitzea proposatuko du, edo lizitazioa huts deklaratu du esleipen-irizpide objektiboen arabera proposamen onargarri bakar bat ere ez dagoenean.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 161. artikuluan ezarritakoaren arabera, esleipena gehienez 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Esleipena posta elektronikoko mezu bidez jakinaraziko zaio eskaintza hobereana aurkeztu duen lizitatzaileri, eta hark honako jardun hauek egin beharko ditu 10 lanegun balioduneko epean, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita:

- Behin betiko bermea jartzea.
- Zerga-betebeharrak (probintziakoak eta estatukoak) eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean dituela egiaztatzea, dagokien erakundeek emandako ziurtagirien bitartez.
- Esleipeduna enpresa talde bat izango balitz, legalki aldi baterako enpresa bezala eratu dela egiaztatzea, eta IFK aurkeztea.

Halaber, Astigarragako Udalak kontratua esleitu aurretik egiaztatuko du ofizioz kontratuaren esleipendunak izango diren enpresa guztiek Udal honekiko zerga-alorreko betebeharrak betetzen dituztela.

Kontratua eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileri ezin bazaio esleitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 151.2 artikuluan xedatzen duenari jarraituz, eskatutakoa behar bezala bete ez duelako,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

lizitzaileak bere eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta hala bada, eskaintzen sailkapen hurrenkeraren arabera hurrengo geratu den lizitzaileari dokumentazio bera aurkezteko eskatuko zaio.

Kontratua 10 eguneko epean formalizatuko da, behin betiko esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Esleipena posta elektronikoko mezu bidez soilik gauzatu da, behin betiko esleipenaren aurkako errekurtsioa jartzeko epea amaitu ondorengo 10 egunetan.

13. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEA

Zerbitzuaren betearazpena kontratua sinatzean hasiko da.

Kontratuaren betearazpena esleipendunaren ardurapean eta kontura egingo da. Nolanahi ere, zerbitzua agiri honetan estipulatutako klausulei, klausula teknikoen agiriari eta lizitazioan parte hartzeko aurkeztutako proposamenari jarraikiz egingo da, baita Udalak eman ditzakeen irizpideei eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta gainerako arauzko xedapenetan ezarritakoari zorrotz jarraikiz.

Esleipendunak nahitaez esleitu behar dizkio agiri honi dagozkion lanen egikaritzapena eskaintzan ageri den izeneko pertsona fakultatiboari, zeinaren kontratuarekiko atxikipenak funtsezko kontratu-izaera izango duen, eta hori horrela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera puntu hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daiteke 223.f artikuluan adierazitakoari begira

Agiri honetan kontratatzen den zerbitzuaren tipologia dela medio, ez dago aukera kontratua beste edozeini lagatzeko, ezta zerbitzuaren zati bat azpikontratatzeko ere.

14. KLAUSULA.- KONTRATISTAREN LAN BETEBEHARRAK.

Esleipenduna behartuta dago lan-alorreko, Gizarte Segurantzako eta laneko segurtasuneko eta higieneko indarreko legezko xedapenak betetzera, kontratua egikaritzeko enplegatzen dituen langileei dagokienez, eta Udala erantzukizunetik askatuko da horiek betetzen ez badira.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

15. KLAUSULA.- ZIGORRAK

Esleipendunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztuak dauden zerbitzuen egikaritzea beteko ez balu (esaterako, aurrez adierazi gabe eta baimenik gabe, udalera ez bertaratzea edo bileretara ez joatea), Udalak bi aukera ditu: edo kontratua suntsiaraztea edota bete gabeko zerbitzuaren kostearen %50ari dagokion zigorra jartzea.

Zerbitzua akatsekin beteko balu, Udalak gaizki edo akatsarekin betetako zerbitzuaren kostearen %10ari dagokion zigorra jarri ahal izango du.

Zigor horiek esleipendunari, kontratuaren prezio gisa, hileroko eman beharreko diru kopurutik kobratuko dira, edo beharrezkoa balitz, hark jarritako bermetik.

Kontratua bertan behera uztea erabakiko balitz, ezarritako zigorrek ez dute kalte eta galeren ordainketa ordeztuko, eta ordainketa hori aparte eskatzeko aukera izango da.

16. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 219. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udalak aldatu ahal izango du kontratua, interes publikoko arrazoiak direla medio, premia berrien edo ezusteko kausen ondorioz, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

17. KLAUSULA.- KONTRATUA SUNTSITZEA.

Zerbitzuen kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak.

18. KLAUSULA.- BERME ALDIA ETA BEHIN BETIKO BERMEA ITZULTZEA.

Prestazioa eman eta, gehienez, 30 egun pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da.

Era berean, bi hilabeteko epea ezarri da, harrera formala egiten den egunetik hasita, berme gisa ezarri dena SPKLTBn jasota datozen ondorioetarako.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Berme epean kontratistaren kargu joango lirateke lanetan eta egindako prestazio guztietan ager daitezkeen akats eta ikusiezinezko akats guztiak.

Epe hori igarotzen bada, Udalak inongo eragozpenik jarri gabe, kontratistaren erantzukizuna amaitu egingo da, eta bermea itzuliko da, baldin eta epaitegietan gairik pendienterik gelditzen ez bada. Kasu horretan, ez da berme osoa itzuliko, baizik eta epaitegi prozedura horri dagokiona gordeko da. Kasu horretan, itzuli gabe gelditu den zenbatekoa itzuliko da epaitegiko ebazpena irmoa denean.

19. KLAUSULA.- IZAERA PERTSONALEN DATUEN BABESA.

Kontratazio honen bitartez eskuratzen diren datu pertsonalak, kontratzaileak SPKLTBaren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

20. KLAUSULA.- UDALAREN ESKUMENAK

Udalari dagozkio hainbat eskumen, hala nola kontratua interpretatzea, kontratuaren betearazpenak eskaintzen dituen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiak direla-eta aldatzea, kontratuaren suntsiarazpena erabakitzea eta suntsiarazpen horren ondorioak zehaztea, betiere mugen barruan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako eskakizun eta ondorioei jarraiki. Hartarako emandako erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearazi beharrekoak izango dira.

21. KLAUSULA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu honek administrazio-izaera du. Alderdiek esanbidez jarraitu beharko diote agiri honetan eta bere baldintza tekniko partikularretan ezarritakoari. Agirietan aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hauetan xedatuta dagoenak arautuko du kontratua:

- 1- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilea.
- 2- 871/2009 Errege Dekretua, Sektore PUblikoko Kontratuen 30/2007 Legea partzialki garatzen duena.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

3.- 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena.

4- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 7/1984 Legea eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bategina, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuena.

5- Tokiko administrazio-kontratazioa arautzen duten eta haren eremuan aplika daitezkeen bestelako xedapenak.

22. KLAUSULA.- ESKUMENEKO JURISDIKZIOA

Kontratu honen ondoriozko gai eztabaidatsiak kontratazio-organoak ebatziko ditu, eta hartzen dituen erabakiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta zuzenean inpugnatu ahalko dira administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan; nolahi ere, kasuan kasu, errekurtsio berezia jarri ahalko da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 40.-49. artikuluetan araututako kontratazioaren alorrean, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean araututako edozeinetan.

Astigarragan, 2018ko otsailaren 13an.

Kontxi Urdanpilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

I. eranskina - Erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

Erantzukizunpeko adierazpena, ordezkatzen duen enpresak ezta haren kide bakar batek ere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan kontratatzeko ezarrita dagoen debeku bakar bat ere ez dutela egiaztatuz.

..... jaunak/andreak,
(helbidea:; PK:
NAN:; telefonoa:; nire gaitasun juridikoaren eta
jarduteko nire gaitasunaren jabe oso izanik, nire izenean,
(edo)
jauna/andrea (helbidea:; PK:
NAN:; telefonoa:) ordezkatuz,
(*pertsona fisikoa edo juridikoa den arabera*)

DEKLARATZEN DUT:

1.- EZ gaituztela kondenatu epai irmoaren bidez zilegi ez den elkartearen, nazioarteko merkataritza-transakzioetan ustelkeriaren, influentzia-trafikoaren, funtzionario-eroskeriaren, iruzurren eta legearen aurkako ordainarazpenaren delituengatik, foru-ogasunaren eta gizarte-segurantzaren aurkako delituengatik, langileen eskubideen aurkako delituengatik, bidegabeko eralgitzeagatik eta errezibitzeagatik eta antzeko jokabideengatik, ingurumena babesteari lotutako delituengatik, edota ez gaituztela kondenatu lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaiakuntza bereziko zigorrera.

2.- EZ dutela eskatu borondatezko konkurtso-deklarazioa, edozein prozeduratan ez direla kaudimengabetzat hartu eta konkurtso-egoeran ez daudela, konkurtsoan hitzarmen batek efikazia eskuratu duenean salbu, esku-hartze judizialari lotuta ez daudela edo ez dituztela desgaitu 22/2003 Lege Konkurtsalaren arabera, konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaiakuntza-epea amaitu gabe egonik.

3.- EZ dutela epai irmoaren bidezko zigorra jaso honako arlo hauetan **arau-hauste** astuna egiteagatik:

- merkatu-diziplinaren arloa,
- arlo profesionala,



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

- laneratzearen eta aukera-berdintasunaren eta pertsona desgaituen diskriminaziorik ezaren arloan,
- lan-arloan, laneko arriskuen prebentzioaren arloko arau-haustek barne, 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako lan-arloko arau-hausteei eta zehapeni buruzko Legearen Testu Bateginean xedatutakoaren arabera, baita testu beraren 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste astuna egiteagatik eta 7.13 artikuluan aurreikusitakoagatik, hau da, **Langileen Estatutuak edota aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak berdintasun-planen alorrean ezartzen dituzten betebeharrak ez betetzeagatik,**
- ingurumen-arloa

4.- EZ dutela faltsutzerik egin 146.1.c) artikulua aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpena egiterakoan edota bere ahalmen edo kaudimenari buruzko beste edozein datu ematerakoan, edota 70.4 artikuluan eta 330. artikuluan aurreikusitako informazioa jakinarazteko betebeharraren ez-betetzetik ez duela egin berari egozteko modukoa den arrazoiren batengatik.

5.- EZ dagoela barne hartuta Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeari buruzko apirilaren 10eko 5/2006 Legearen edota Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzko 1984ko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen kasuetako bakar batean ere, edota Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko kargu bat dela, lege horretan ezarritako terminoetan.

6.- Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeari buruzko apirilaren 10eko 5/2006 Legearen 18.6 artikulua aipatzen duen ez-betetzeagatik «Estatuko Aldizkari Ofizialean» agertu den inolako pertsonarik ez dutela kontratatu.

7.- EZ dutela eragin, errudun deklaratu dituzten kausarengatik, Administrazio Publiko batekin sinatutako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa.

8.- EZ dutela edozein Administrazio Publikorekin kontratatzeko debeku bat hautsi.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

9.- EZ dagoela administrazio-zigor baten indarrez ezarritako kontratatzeko debeku baten eraginpean, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean edota Zergei buruzko 58/2003 Lege Orokorrean aurreikusitakoaren arabera.

10.- EZ duela modu desegokian erretiratu bere proposamena edo hautagaitza esleipen-prozedura batean, edota ez duela eragotzi kontratua bere alde esleitzea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 151.2 artikuluan ezarritakoa ez betetzeagatik aipatzen den epearen barruan, dolua, errua edo zabarkeria tarteko.

11.- EZ dituela bete gabe utzi Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 118. artikuluan adierazten denaren arabera ezarritako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astun gisa definitu bada lege hau garatzeko xedapenen arabera, eta enpresariaren dolua, errua edo zabarkeria baldin badago.

Eta dagozkion ondorioetarako horrela jasota gera dadin, adierazpen hau egiten eta sinatzen dut.

....., 20.... koaren(e)an.

Zigilua eta Sinadura



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

II. eranskina: Proposamen-ekonomikoaren eredia (C gutun-azala)

Nik,
 jaunak
 (helbidea:
PK:.....,
 NAN:, telefono-zenbakia:, eta
 posta elektronikoko helbidea:) prozedura osoa Udalar
 jakinarazteko, nire gaitasun juridikoaren eta jarduteko nire gaitasunaren jabe
 oso izanik, nire izenean (edo jauna/andrearen PK:
, telefono-zenbakia:, eta NAN edo IFK:
 -bata ala bestea, pertsona fisikoa ala juridikoa izan- ordezkar
 gisa), **HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILEKO
 AHOLKULARITZA ZERBITZUA**, kontratatzeko Astigarragako Udalak deitu
 duen lehiaketaren berri izanik, honako hau

ADIERAZTEN DUT:

1.) Kuantifikatutako lanak orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dut:

Kontratuaren lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja zifra absolututan	Baja (%)
54 euro orduko			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe ORDUKOEURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja dela, hots, %

2) Kuantifikatu gabeko lanak bezala sailkatutako bilerak orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dut:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Kontratuaren lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja absolututan zifra	Baja (%)
54 euro orduko			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe ORDUKOEURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja dela, hots, %

3) Kuantifikatu gabeko lanak bezala sailkatutako txostenak/irizpenak eta dokumentazioa orduko prezio honetan egiteko konpromisoa hartzen dut:

Kontratuaren lizitazio-prezioa (BEZik gabe)	EGITEN DUEN ESKAINTZA: PREZIOA BEZik GABE	Baja absolututan zifra	Baja (%)
54 euro orduko			

Eskaintza ekonomikoa, BEZik gabe ORDUKOEURO dela

Eskaintza hori lizitazio-prezioari dagokionez, BEZik gabe,euroko baja dela, hots, %

4º) Epaitegietako defentsan, Gipuzkoako Abogatuak Elkargoak prozedura horretarako xedaturiko gutxieneko tarifyan jaitsiera hau aplikatzeko konpromisoa hartzen du:

Proposatutako prezio-jaitsieraren portzentajea.

Beharapena eginez gero: Epaitegiko defentsa guztietan gutxienez %.....ko beharapena egin da Gipuzkoako Abogatuak Elkargoak prozedura horretarako xedaturiko gutxieneko tarifarekiko. Dena den, zenbateko kuantifikatuetan edo zehaztuetan, beharapen handiagoa negoziatzeko prest nago.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Beherapena egiten ez bada: Epaitegiko defentsetan, EZ da beherapenik egingo Gipuzkoako Abogatuaren Elkargoak prozedura horretarako xedaturiko gutxieneko tarifarekiko.

5.- Kontratua esleitzen badidate, eskatutako polizan eta kontratuan eskatzen diren berme osagarrien ekarpena egiteko konpromisoa hartzen dudala.

6.- Kontratua egikaritzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonalak konpromisoa hartzen dudala; horretarako, betebeharrak hori onartzen dut eta betebeharrak hori funtsezkotzat hartzen dut. Halaber, konpromisoa hartzen dudala zerbitzu osoa egindako eskaintzaren arabera egikaritzeko.

7.- Konpromisoa hartzen dudala eskaintza ekonomikoak egiten diren egunean Kontratazio Mahaiari emateko, eskaintza ekonomikoari dagokion posta elektronikoko mezua ireki baino 5 minutu lehenago, mezu hori irekitzeko behar diren segurtasuneko gakoak edo digituak.

Sinadura